

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Zer da denbora?

Makina apetatsua da burmuina, noiz-bait nonbait nolabait prozesatutako informazioa kutxa gotor horretatik atera, eta kasualitatez bezala birsortu den oroitzapen moduan itzultzen dizunean. “Atzo gaur bihar zan” abestiarekin gertatu zait duela gutxi. Ez dakit zer konexio-mota egin zuten nire pentsamenduek, bikotea eta biok pailazoen ez dakit zer kanturi buruz hizketan ari ginela, nire ideien haria Sen eta Hendrik Roever-en elkarlan akustiko hartara joan zedin.

Bat-batean suspertu zitzaizkidan gorputz-atalak nerabezaro, eta hondartzara bidaiatu, demagun, 2005eko uztaileko arratsalde batera. Eguzkitan etzanda baina azal-zuri, Lucky Strike pakete bat toallan eta buruak elkarrengandik gertu, soinu este-reoa laguntasun adolezentearen mesedetan albo batera utzi, eta aurikular bikotea belarri banatan jarrita, doinu hori behin eta berriz entzuten.

Gogoan dut nola harripatu gintuen abestiak. Doinuagatik, hasieran, baina baita lau hitzetan adierazten zuenagatik ere. Beti erakarri izan binaute asmo poetikoz denboraren bueltan eginiko hausnarketek. Lilura absurdo eta sinplea, pentsa lezake askok, denboraren ardatzean eraikitako hitz-segidak kontu ebidentetzat joz: zer da, bada, denbora, gure izatea bermatzen eta inguratzen eta baldintzatzen eta erabakitzen duen ezinbesteko elementu izateaz aparte?

Bizitza bere soilean, hori da denbora: enbrioitik fetu eta fetutik jaioberri egiten gaituena, bederatzi hilabete. Eta, hilabete horietan guztietan haurdun dagoen emakumeak egiten dituen errenuntzia guztien atzean dagoena ere bada denbora, parranda, goi-mailako kirol ala pasteurizatu gabeko gazta forman. Zer esan, proiektua bi pertsonarena dela

ulertu gabe, haurdunaren bikoteak egiten ez dituen errenuntzietan dagoen denboraz.

Bertsolari bat txapelketa nagusiko finaleko oholztatik kanpo utz dezake denbora-mugak, bere bertsoen mamiak bertan egon beharko lukeela dioen arren. Eta, bulegoko ordutegia amaitu eta 2.000 euroko soldata jasoko duen bertsozaleari nagusitasunezko posizio bat ematen dio denborak, hamabi orduz lanean jardun eta 800 jasoko dituenaren aldamenean.

Erreduantzia bada ere, denbora dira Behobia-Donostiako markak, eta marka horiek erdietsi ahal izateko entrenamenduak; baita batek entrenamenduak osatu ahal izateko besteak egiten dituen zaintza, garbiketa eta antolakuntza lanak ere.

Denbora gorputz batzuei bakarrik baimentzen zaien gozamina eta pribilegioa da eta, hori hala

Beti erakarri izan naute asmo poetikoz denboraren bueltan egindako hausnarketek. Zer da, bada, denbora, gure izatea bermatzen eta inguratzen eta baldintzatzen eta erabakitzen duen ezinbesteko elementu izateaz aparte?

den heinean, denbora muga eta ezintasuna da gainerako gorputz guztientzat. Ez dakit zenbat denbora pasatuko den egitate horrek burmuin guztiak astindu ditzan; makina apetatsu madarikatuak.

Atzo, gaur bihar zen; atzo, azaroaren 25a zen. Atzo, Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna zen; jipoiz, hitzez, bortxaz, keinuz, isiltasunez eta denboraz moztarotatu daitekeen indarkeriaren aurkako. Gaur atzo bezala, eta biharko moduan, hartu, jarri, oparitu, eskaini, inbertitu beharko dugu denbora, itotzen gaituzten egitura guztiak behin betiko desegiteko. •